

Gure demokrasi oiñarriak

Alderdi, 263. zk., 1971-05.

Eusko Alderdi jeltzaleak, demokrata danez, demokrasi bideak ibili nai ditu. Asiera-asieratik, batzar nagusietatik atera dira bere ideoloji oiñarriak, eta, gero, batzar nagusiak egiteko askatasunik izan ez dugulako, iru aldiz eman ditu Alderdiak zuzenbide batzuk:

1) *Alderdi* onetantxe azaldutako "Politika-ageria" 1949an.

2) Berriz ere Eusko Alderdi Jeltzalearen izenean itz egiten duen *Alderdi* berean agertu zen Agirre Lendakariaren eriotza ondoren, 1960an, beste Agiri bat.

3) Eta sei urte gero, 1966an, agertu zen editorial onen atzean dihoan beste Agiria.

Agiri au idatzi zen ezkerro igaro dira beste bost urte. Mundu guzian eta arazo guzietaz sortu dira eztabaidak eta egin dira aldatetako; bost urte oietan, umea zen euskotar asko egin da gizon, edo emakume; ala ere, gure politika arazoak ez dira Euzkadin aldatu, eta, noski, erriak ez du bere batzarrak eratzeko eskubiderik izan; alaxe arkitzen da Eusko Alderdi Jeltzalea bere bideak, bere zuzen bideak, batzarretan gaurketzeko erarik gabe.

Ez dugu, ala ere, ontan geratu nai.

Erri-alderdi bat osatzen dugunez, ba ditugu sozial, ekonomiko, kultura eta politikazko (bai erri-barruko eta baita erri-arterko) jokabideak. Joko-bide oiek ez dira iñorenakin lotzen. Ez da zailla, ez, munduko jokabide nagusiren bat guretzako artzea; mundu ontan bizi geranez, gauza asko dire, noski, gure erriari ondo datozkionak, baiña ezin dindezke fanatikoki arrotz den eta gure esperientziari ondo ez datorkion jokabide bati lotu. Guk erri konkretuari, Euzkadiri, dagozkion demokrasi bideak ibili nai ditugu, eta bide oiek ez dute Alderdiaren ordezkariak nola nai artuak izan bear, erri-batzarrak eta garaian-garaizkoak aukeratuak baizik. Alaxe arkitzen gera berriz 1971go urtean gure erri-batzarrak egiteko askatasunik gabe.

Ezin gera, noski, ontan geratu.

Gure erakundeak erriaren naietatik eta erriaren onerako bizi nai izate onetxegatik lengo gure jo-mugak gaurkotu nai genituzke. Onetarako dihoakizue ementxe, 1966an *Alderdi* agertu zen Agiria. Denok nai ditugu berritu eta indartu, gure giroak agintzen duen neurrian gaurketu.

Idatzi zazu, irakurle, *Alderdi*ra: aal baduzu artikulo moduan idatzita, eta, bestela, karta baten moduan.

Ez gera gu aldizkari ontan agertzen eta eztabaidan asiko, ez baitugu onetarako ez tokirik eta ez denborik ere; baiña bakoitzak bialtzen dituan iritzi eta asmoak pozik jasoak eta aztertuak izango dire, eta datozen *Alderdi*etan ikusiko dituzu zure kezkek eta naiak aztertuta.

Ezin dituzu, noski, zure asmoak izenpetu; askatasun eguna etortzen denean itz egingo dugu arpegiz-arpegi; bitartean gure kide sentitzen diren gizon eta emakumeen asmoak jakin nai ditugu, eta oien bidez aaleginduko gera gure erri-bideak egiten. Ala

ere, izenik jartzen ez baduzu ere, jarri zazu zer adiñeko eta lan-bideko eta gizon edo andre zeran; informazio onek ez zaitu arriskoa jarriko eta asko lagunduko digu.

Zure asmoen zai geratzen gera-ba.

Euzko erriari

Arana-Goiri'tar Sabin'en jaiotzaren eunurrena izanik igaro dan urtean Euzko Alderdi Jeltzaleak aberkoi egiketa ugari eratu dizkio gure irakasleari omenaldi lez. Agerpen onegaz itxi nai du eunurren urte ori bere azken egunean.

Gogai, egitarau eta barren-erakundean gure Alderdia demokrata danez, gogai eta egitarau oien adi-mugatzea, demokrazi arauz, Alderdia-ren Batzar Nagusia'ri bakarrik dagokio.

Batzar Nagusi oiek ogei ta bederetzi urte auetan bildu ezin izan arren Euzko Alderdi Jeltzalea ez da gelditi ezer egin gabe egon baizik, bere gogaiari zintzo erantzunaz. Batzar Nagusiak ta aurren urtetako jokaerak erakutsi dion bideetan eginkizun guziera arpegi eman die, bere izate guziko jokaera eta erabili ditun bideak gaurko munduak ontzat artzen dituanakin adox datozela poz-ozik oartuaz.

Gertaldi bakoitzean, eta etengabe azken urte auetan, agerkari eta bere Deia dan "Alderdi"n, batez ere 1949'garrenean *erriketa agerpenaz*, eta 1960'an Agirre Lendakaria'ren eriotz ondoren *agiri* baten bidez adierazi du bere jokaera Euzko Alderdi Jeltzaleak.

* * *

Batzar Nagusieri dagokien eskubideak guretu gabe eta bere garaian aiek artuko dituzten erabakiak onartuaz; gure errian ditugun sustrai sakon eta zabalak bere ordezkariak jatorrenen biurtzen gaitulako; gaurko gure lan-giroa alda lezaketen gertaerak gertu izan litezkelako, eta alderdikide askoren iritxia ezagutuz Euzko Alderdi Jeltzalea'ren Euzkadi Buru Batzarrak euskotar guziengana iritxi nai du Alderdia'ren gogaiak egietitzen ditun AGERPEN onen bidez. Orretarako:

Gizon eta bazkun guziek bere nortasuna osatzeko eskubidea dutenez: orrenbeste gizalditan errilantze eta gogo buruketan irabaziak izan dira gizonaren eskubideak –gure Lege Zarrean lendik aiñ agiriak– aldeztu; eskubide berriak eraikitzen saiatu, eta nortasuna osatzeko gizon eta bazkunak bearreko dituzten ekonomi, jakintza eta izpiritu laguntzak bakoitzaren esku jartzen alegindu bear dula gizarte edo elkarguak, DIO Euzko Alderdi Jeltzaleak.

Izate berezi, jakintza, oitura eta izkuntzean nabarmendua; odol ixuriz, eraso-alditan eta bere-biziko agerkundeetan erriak baieztua, eta edestian zear berez sortua dan euzko erria: Euzkadi, OIUKATZEN DU Euzko Alderdi Jeltzaleak.

Nortasun au eta bere ondorioak, bereziki euskotarrak bere naiak askatasun osoan adierazteko eta erabakitzen dutena bere politika bizitzaren iturri bakarra egiteko eskubidea besteak aitortu dezatela, ESKATZEN DU Euzko Alderdi Jeltzaleak.

Jatorri batekoak geranez, alkartasunean, geuk erabakitzen degun bidean bizi alizateko eskubidea degula euskotar guziok, ESATEN DU Euzko Alderdi Jeltzaleak.

Eta Sorburu oien ondorio diranez, Euzko Alderdi Jeltzaleak nai du Euzkadirentzat:

Euzko abendaren berezitasunak –len-lenen euskera– bizirik gorde ta indartu, eta euskotar bakoitzean gure erriaren ezaguera osatu, ABENDERI ARLOAN.

Eskubide berdiñaz erritar denak zer ikusi izatea erri-agintaritzan; azkatasun guztiak babestuko ditun lege ta eralguntzak; agintari ta edozein indardunen jauntxokerietatik agindupekoaren eskubideak zainduko ditun lege agintaritzan, eta gure bazkun, lege ta oitura zaarren arnas gaurkoratua daraman demokrazi bat, POLITIKA SALLEAN.

Liberal ekonomipean oi diran geiegikeri, ondaketa eta urritasun billatuak alderatuko ditun demokrazi egitaraua, diru batz utsak diran baltzu edo enpresak, jabetza, zuzentza eta irabaziak langille, zuzendari eta dirutzaren ordezkarien ardurapeko egiñ; demokrazi bidea galerazi lezaketan baltzun aundiegiak, erri-bearrak betetzen dituztenak eta bear aña dirutz bildu ezin dutenak erri-enpresa biurtu; koperatiba jabetza babestu; gure errian ezagutu ditugun sendi-jabetza eta erri-jabetza, gaurkotuak, irasi: gizon, jakintza eta diru indar guziak joka eraziaz euskotar guzien onerako dan erri osoaren –egille eta erosle– ardurapeko dan langintza antolaketa osasuntsu bat, EKONOMI GAIAN.

Langilleak alkartzeko duten eskubidea, alkartasun oientzat askatasuna eta opor egin al-izatea ontzat artu eta babestea; errenta eta lan-sarrietan zuzentasuna; goi mallako baltzun karguetarako bidek denontzat ideki; berdintasun aundiagoa egokituko duen sergapolitika; ben-benetako gizarte ziurtasun lege bat: langille guzien bizibidea goratuko duen GIZARTE DEMOKRAZIA.

Aberatz edo txiro, gai dan edozeiñentzat gertu dagon jakintza eta eraketa goitikoak emango ditun irakaskintza; ikasgai agiriak ematez gañera, jakintza eta gogo-bikikera zabal bat sortuko duen gaur eguneko jakite ta pedagogiak eskatzen duten mallako Euzko Ikastetxe Nagusia; teknika, jakite-salla eta bizitarako-jakite ondo eratuak; berriak ezagutu eta jakin erazteko guziok degun eskubideari dagokionez, orretarako bideak –agerkai, irrati, telebista, e.a.– iñori esku batean biltzen utziko ez dion JAKINTZA ESKUTARTEA.

Osatuko duten abenderri guzien berezitasunak babestu eta euren jakintza eta ekonomia indartzeko erreztasunak emango ditun ERRIEN EUROPA'n sartu nai degu Euzkadi, indar eta maltzurkeri bidez sortuak izan diran Luterrieri iraun erazteko egin nai dan Europa'ri uko egiñaz.

Berdintasunean gizon eta gizatalde bakoitzaren eskubideak zaindu, eta gerta litezken eztabaidak indar bideak utziz lege-itzalean erabaki al izateko bearreko diran bazkun eta auzi-bideak ditun Mundu'ko Errien Alkartasunaren alde gera.

Alkartasun au sortzen ez dan bitartean, izkillu guzien gutxitze zorrotz bat nai degu, eta bere askatasun, eskubide ta jakintzen alde dabilten gizon eta erri guzien lagun gera.

* * *

Orregatik, orain arte lez aurrerakoan ere, euzko erria'ri dagokion –eta alde batera utzi eziñak diran– eskubideari uko egin gabe:

Gure erriaren nai ageriari erantzunaz sortutako Euzko Araudia dala-ta eratua izan zan Euzkadi'ko Jaurleri'tza legezko ordezkari bakartzat aitortzen du, eta Erri berak askatasunean beste bide bat aukeratzen ez duen bitartean laguntza osoa emango dio.

Beste politika-indar demokrazialeaz, oraingo eta bese edozein diktadura'ren aurka lanean jarraituko du, burruka au indartu dezatela guziera eskatuz; eta diktadura etsai izanik Bayona'n 1945 garren urteko epailla'ren 31'an agertu zan azalpenean aitortzen dan gure erriaren burujabetasuna onartzen duten guziera Resistentzi burrukara dei egiten die.

Gure erriarentzat dauzkagun asmo nagusieri dagokienez, euren errien askatasun alde burrukan dabilten guziera –Katalunya ta Galizi'ri batez ere– bere itzal ta adizkidetasuna bialtzen dizkie Euzko Alderdi Jeltzaleak, nortasun osoa irixteko bearreko duten politika eraketa lortzeko laguntza eskeñiaz.

* * *

Arana-Goiri'tar Sabin'ek sortu ezkeroz erasoaldi gogorpean jarraituaz, Euzkadi'n abertzale eta politika-indar garrantzitsuena biurtu dan Euzko Alderdi Jeltzalea'k, bidezko dan baikortasunez, igespiderik ez daukan Franco-ren agintaritza amaitze lanean ari da, garai berean gure erriaren nortasuna egiten duten berezitasunak zuzpertzuz.

Euzkadi eta demokraziaren etsai diran politikak gure erriari egin dizkioten kalteak ezereztutzeko; egiñala guziak egin arren ill ezin izan duten gure jakintza indartzeko, eta askatasun bidea errezteko Euzko Alderdi Jeltzalea euskotar guzien erantzunpideari dei egiten dio, bere bultzadaz –Euzkadi'ko politika indar aundiena egiñaz– gure Aberria'ren egizko ondasuna'ri eusteko bearreko dan indar aundi, askar eta iraunkorren biurtu dedin.

Asmo oiek aurrera eramateko, euskotar guziegan, batez ere Euzkadi'ren etorkizuna dan gaztediegan zabalkunde bidez abertzaletasun, politika eta errizaletasuna grtatzen biziki saiatu bear duela uste du Euzko Alderdi Jeltzaleak. Ortarako, bere erakuntza zabaldu eta indartuaz, gogaikide diran euskotarrak zuzendaritza, ekintza eta ikastaldetara ekartzen saiatzen ari da.

Euzkadi ta euskotarrentzat nai ditugun eskubideak iritxi ta gorde al-izateko lan gogorra egin bear degula gogoratuaz, guraso euskotarretatik edonun sortueri, Euzkadi'n jaioteri, eta kanpotik etorriak beren eta euren semeen askatasun eta etorkizuna gure erriarenakin bat egiten duten guziera Euzkadi Buru Batzarrak dei dagie, gertu degun garai guztiz garrantzitsuan bakoitzaren eginbearrez osoki jabetu ditezela eskatuaz.

GORA EUZKADI ASKATUTA

Euzkadin 1966'garren urteko Ilbeltza'ren 26'an

EUZKADI BURU BATZARRA.